

LEHENDAKARIAREN GUTUNA

Pandemiak ezaugarrituriko urte honetan, inoiz baino indar handiagoz ikusi da etorkizun iraunkorrerantz egiteko dagoen beharra eta horren egokitasuna. Fagor Taldearen kasuan, iraunkortasuna gure enpresa jardueraren elementu osagarri izatetik gure estrategiaren erdigunean jartzera igaro den urtea ere izan da 2020a. Fagor 2030 estrategiak jauzi kualitatiboa ekarriko du iraunkortasunaren kudeaketan, Fagorrek etorkizun iraunkor eta inklusiboarekin duen konpromisoaren erakusgarri. 2020. urtean zehar interes taldeekin egindako elkarrizketa sakonen emaitza da estrategia hori. Fagorren, industria deskarbonizatua, zirkularra, digitala eta inklusiboa eraiki nahi dugu, eta horretarako ahalegin guztia egingo dugu datozen urteetan.

Joxean Alustiza Usandizaga
Fagor Taldeko lehendakaria



Etorkizuna hobetzeko lanean

Argi ditugu gure konpromiso nagusiak...

1

Gure negozioak eraldatzea, ekonomia digital, deskarbonizatu eta zirkular baten testuinguruan enplegua sortzen segi dezagun.

2

Gure gobernantza eredu demokratikoa hobetzen eta garatzen jarraitzea.

3

Testuinguru egokiak sortzea gure pertsonen euren onena eman dezaten.










4

Larrialdi klimatikoari aurre egiteko gure karbono aztarna murriztea.

5

Gure lurraldearen eraldaketan inplikatzeko.

Datu nagusiak

 10.038 lanpostuak	 28.379.000 € irabaziak
 1.263.451.826 € salmentak	 4.067.653 € konpromiso sozialera bideratua
 1.539.230 € galeren konpentsazioa eta kooperatiben arteko emaitzen birbanatzea	 209 kooperatibetako Kontseilu Errektoreetan eta Sozialetan parte hartzen duten pertsonak
 5.009 lanpostuak Euskal Herrian	 %30 emakumeak
 4.011 bazkideak	 90 bazkidetza berriak
 11 konsolidatutako birkokapenak	 80 erretiroak
 < 6 gehieneko ordainsari aldea	 %6 absentismo maila
 %0,6 laneko istripuen edo gaixotasunen ondoriozko absentismoa	 719.270 € euskara planetan egindako inbertsioa
 %72 jatorri berriztagarriko energia kontsumoa	 0 korruptzio kasuak

